

GOI MAILAKO ARKITEKTO LANPOSTUA ALDI BATERAKO BETETZEKO -ALDI BATERAKO PROGRAMA BAT BURUTZEKO- OPOSIZIO-LEHIAKETA DEIALDIAREN OINARRIAK

LEHENA.- XEDEA ETA IZAERA.

Hautaketa probak deitzen dira, bitarteko kontratuz, behin-behineko programa betearazteko, eta lehiaketa-oposizio sistema bidez, goi mailako arkitekto lanpostua betetzeko: A taldekoa, A1 azpitaldekoa, eta talde horri dagozkion ordainsariekin (A1 azpitaldearen oinarrizkoak, 25 lanpostuaren osagarria, 26.532,66 euroko osagarri espezifikoa urtean, dedikazio berezia barne), hirurtekoak jasotzeko eskubidea, aparteko ordainsariak eta indarrean dagoen legearen arabera dagozkion bestelako ordainsariak.

Deialdi hau apirilaren 12ko 7/2007 Legeko, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartzen duena, 10.1 a) eta c) artikuluek justifikatzen dute, bitarteko funtzionarioen izendapena ahalbidetzen duen legea, beharizan eta urgentziako arrazoi justifikatuengatik, karrerako funtzionarioei dagozkien eginkizunak burutzeko. Horretarako, aldi baterako programak betearazteko beharizana eman behar da.

Kasu honetan, bete behar den aldi baterako programa udalerriko HAPN berria da, hori lantzea eta aholkularitza ematea, onartua izan arte. Horrez gain, azpimarratzekoa da udal arkitektoari dagokion plaza, epe laburrean, hutsik gera daitekeela aurreikusten dela, titularrak karrera funtzionario izaera galduko duelako osorik erretiratzen denean. Langile publiko hori denez titulazio hori daukan Administrazio Teknikari Berezi bakarra, beharrezkoa eta urgentea da profesional biak aldi berean lanean egotea epe batez, lanarekin eraginkortasunez jarraitu ahal izateko, HAPN berriaren txostena atzeratu barik.

Azaldutakoaren arabera, abenduaren 27ko 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 17/2012 Legeak dioenaren ondoretarako, adierazten da lanpostu hori lehentasunezkoa dela eta ezinbestekoak diren zerbitzu publikoei eragiten diela, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarrizko Arautzen dituen 7/1985 Legeko 25.2.d) artikulua ezartzen dituen zerbitzuak, hain zuzen ere.

BIGARRENA.- HAUTAGAIEN BALDINTZAK.

Hautaketa probetan parte hartu ahal izateko, hautagaiak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Europar Batasuneko Estatu bateko nazionalitatea edukitzea edo beste edozein Estatutakoa, Espainian indarrean dagoen Batasuneko araudiarekin ados, aplikatu ahal bazaio langileen zirkulazio askea, Europar Batasuneko Tratatuan eta garapeneko araudian zehaztutako terminoetan. Halaber, espainiarren eta Europar Batasuneko Estatuak nazionalitatea dutenen ezkonlagunak aurkez daitezke, legalki banatuta ez badaude, baita euren eta ezkonlagunen ondorengoak ere, betiere banatuta ez badaude, 21 urtetik beherakoak ez badira, edo 21 urtetik gorakoak izanik haien bizkar bizi badira.
- b) 16 urte beteta edukitzea eta ez gainditzea nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina.
- c) Lanpostuari dagozkion eginkizunak normal betetzea eragozten duen gaixotasunik edo ezintasun fisikorik ez izatea.
- d) Arkitekturan lizentziatua izatea, edo horren baliokidea, edo eskabideak aurkezteko epeak zehaztutako dataren barruan, titulazioa eskuratzeko egoeran egotea. Titulazioa atzerrian lortu bada, homologazioa egiaztatu beharko da, otsailaren 20ko 285/2004 Errege Dekretuak, goi mailako atzerriko ikasketen homologazio eta baliokidetze baldintzak arautzen dituen, dioenaren arabera.

e) Diziiplina-espeditente bidez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik berezita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako ezgaitasun erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko ere, edo lan-kontratudun langileen kasuan, bereziak edo ezgaituak izan diren lanpostuko antzeko eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionalitatea dutenen kasuan, bere Estatuan, termino berberetan, enplegu publikoa eskuratzea ekiditen dion ezgaitasun egoeran ez egotea, edo antzeko egoeran, ezta diziiplina zehapenik, edo baliokiderik, ez edukitzea ere. Oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete egin behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean, baita hautaketa prozesuak irauten duen bitartean ere.

HIRUGARRENA.- ESKABIDEAK.

Forma.- Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideetan, adierazi behar da deialdian exijitutako baldintza guztiak betetzen direla. Leioako Udaleko Alkate-presidente andreaki zuzenduko zaizkio eta oinarri hauetako I. Eranskinetako ereduak erabiliko da. Eskabideak Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Elexalde 1) aurkeztu beharko dira publiko aurreko ordutegian, edo Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen, azaroaren 26koa, 38. artikuluan adierazten diren bulego publikoetako edozeinetan ere aurkez daitezke.

Eskabideari honako agiri hauen fotokopia konpultsatuak erantsiko zaizkio:

- a) NAN edo pasaportearen indarrean, Espainiako nazionalitatea dutenen kasuan.
- b) Europar Batasuneko Estaturen batekoak diren hautagaien kasuan, jatorrizko estatuak nortasun agiri baliogarria eta indarrean dagoena, titularraren nazionalitatea jasotzen duena, edo pasaportearen.
- c) Pasaportearen eta Batasuneko egoiliarren familia txartela aurkeztu behar dute espainiarren eta Europar Batasuneko Estatuak nazionalitatea dutenen ezkonlagunak diren hautagaiak, legalki banatuta ez badaude, baita euren eta ezkonlagunen ondorengoak ere, betiere banatuta ez badaude, 21 urtetik beherakoak ez badira, edo 21 urtetik gorakoak izanik haien bizkar bizi badira. Betiere, hori guztia Batasuneko Estaturen batekoak ez badira, bestela, aurreko puntuko dokumentazioa aurkeztu beharko dute.
- d) Exijitzen den titulazio akademikoaren kopia. Exijitzen denaren titulu baliokidea aurkeztu bada, baliokidetasuna ezartzen duen araua alegatu beharko da, edo bestela, baliokidetasuna ziurtatzen duen organoak eginiko ziurtagiria aurkeztu. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, Espainian homologatuta dagoela ziurtatzen duen kredentzialaren fotokopia konpultsatua aurkeztuko da.
- e) Alegatutako merituak zerrendatzen dituen adierazpena eta horiek egiaztatzeko agiriak (kopia konpultsatuak). Ezin izango dira eskabideak aurkezteko epe barruan alegatutako eta justifikatutako merituak ez direnak baloratu, ezta, epe barruan alegatuta egon arren, ondoren justifikatzen direnak ere.
- f) Hala badagokio, eskuratutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen ziurtagiri edo tituluaren kopia.
- g) Zinpeko adierazpena, II. Eranskinetako ereduari jarraiki. Hautaketa probetan, %33tik gorako ezgaitasun egiaztatua dutenentzat, hala eskatzen badute, probak burutzeko denborazko eta baliabideen egokitzapen posibleak egingo dira. Hautagaiaren ezgaitasun egiaztatuak, denboraren barruan, probak edo ariketak egiteko gaitasun produktiboari edo mekanikoari eragiten badiot, salbuespenez, denbora heren batez luza dakiok. Zentzu horretan, eta lehen aipatutako agiriez aparte, hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidearekin batera, ezgaitasun horren, deialdiko plazari dagozkion funtzioak burutzeko gaitasunaren eta ariketak egoki burutzeko behar dituen egokitzapenen ziurtagiria aurkeztu beharko du, EAeko zuzendaritza organo eskudunak egina, edo Estatuak zein gainerako erkidego autonomoetako organo eskudunak egina. Hautagaiak eskabideetan jarri dituzten datuei

lotuta egongo dira. Datu horiek aldatzeko eskaera egin dezakete, arrazoitutako idatzi bidez, eta eskabideak aurkezteko epearen barruan. Epea amaituta, ez da horrelako eskaerarik onartuko.

Aurkezteko epea.- Deialdiaren publizitate egokia bermatzeko, xedatzen da eskabideak aurkezteko epea HOGEI EGUN NATURALEKOA izango dela, iragarkia Leioako Udaleko iragarki taulan argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Udal web gunean ere argitaratu beharko da.

Aurkezteko lekua.- Behar bezala betetako eskabide orriak, exijitutako titulazioa eta baldintzen ziurtagiriek batera, Udaletxeko Erregistroan aurkeztuko dira, baita azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duenak, 38. 4 artikuluan aurreikusitako moduan ere.

LAUGARRENA.- HAUTAGAIK ONARTZEA.-

Onartuak izateko, hautagaiak bete behar dituzte Hirugarren Oinarriko baldintza guztiak, eskabideak aurkezteko epearen barruan beti, eta azterketa egiteko eskubideak ordaindu.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartutako eta baztertutako behin behineko zerrenda adierazten duen ebazpena egingo da eta Udaleko Iragarki Taulan eta web gunean argitaratuko da. Baztertutako kasuan, arrazoiak ere zehaztuko dira.

Baztertutako eta onartutako hautagaiak BOST LAN EGUNEKO epea izango dute, ebazpena iragarki taulan argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, zerrendetan bazterketa edo omisioa eragin duten akatsak zuzentzeko, posible balitz.

Aipatu epe barruan, bazterketa konpontzen ez duten edo omisioa alegatzen ez duten hautagaiak, onartutako zerrendan agertzeko eskubidea justifikatuz, probetatik kanpo geratuko dira behin betiko.

Arazoak zuzentzeko epea amaituta, udaleko iragarki taulan eta web gunean argitaratuko da onartutako eta baztertutako behin betiko zerrenda, Kalifikazio Epaimahaia nortzuk osatzen duten eta proben lekua, data eta ordua onartzen dituen Alkatetzako Ebazpena. Behin prozesua hasita, hautaketa prozesuko egintza guztiak Udaleko Iragarki Taulan eta web gunean argitaratuko dira. Onartutako eta baztertutako zerrenda onartzen duen ebazpenaren aurka eta akatsak edo zerrendako omisioak zuzentzen dituzten beste horien aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, jurisdikzio horretako Lege Arautzailearen arabera. Edozein kasutan ere, zuzenketak epean eta forman ahalbidetzeko, hautagaiak konprobatuko dute euren izenak agertu egiten diren iragarki Taulan argitaratutako onartutako zerrendan.

Egitatezko errakuntzak edozein momentutan zuzen daitezke, ofizioz edo interesdunek eskatuta, azaroaren 26ko 30/92 Legeko 105.2 artikulua dioenarekin ados.

BOSGARRENA.- KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA.-

Kalifikazio Epaimahaia presidentek, hiru bokalek eta idazkariak osatuko dute, azken hori, hitz egiteko eskubidearekin baina botorik gabe.

Epaimahaia inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioen arabera osatuta egongo da, eta halaber, emakume eta gizonen arteko parekotasunerako joera izan beharko du.

Izendapen politikoko langileak, bitarteko funtzionarioak eta behin behineko langileak ezingo dira epaimahaikide izan. Norberaren izenean izango dira epaimahaikide, ez inoren izenean edo inoren ordezkari legez.

Epaimahaikideen izendapenen artean, titularren ordezkioak ere izendatuko dira.

Bokalen titulazioa edo espezializazioak deialdiko plazarako eskatzen dena edo horren gainetikoa izan beharko du.

Epaimahaia ezin izango da osatu Presidentea eta Idazkaria ez badaude, ezta gutxienez, kide titular edo ordezkien erdia ez badoaz.

Epaimahaikideen izendapena Udaleko Iragarkien Taulan eta web gunean argitaratuko da.

Epaimahaiak gehiengoz hartuko ditu erabakiak, eta berdinketarik balego, presidentearen kalitatezko botoa ebazlea izango da.

Epaimahaiak, gehiengoz, Oinarri hauetako arauak aplikatuzetik sor litezkeen zalantzak eta proposamenak ebatziko ditu eta eskumena izango du probetan zehar egon litezkeen gaiak ebatzeko, eta neurriak hartu ahal izango ditu probak behar bezala garatzen direla bermatzeko, Oinarriek aurreikusten ez duten guztian. Erabakiak inpugnatu ahal izango dira, azaroaren 26ko 30/92 Legeak ezarritako kasu eta moduetan.

Epaimahaia ez da disolbatuko hautaketa prozesutik erator litezkeen erreklamazioak edo zalantzak ebatzi arte. Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen Legearen 28. artikuluan ezarritako kasuetan, epaimahaikideek ezingo dute parte hartu, martxoaren 10eko 364/95 Errege Dekretuko 13.4 artikuluekin ados. Halaber, hautagaiek ezetsi ahal izango lituzkete epaimahaikideak horietariko kasuren bat gertatzekotan. Beharrezkoa balitz, proben izaera dela-eta, aholkulari espezialistak izenda litezke, eta horiek, euren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, hitza izanik baina ez botorik, uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeko 31.3 artikulua ezartzen duen bezala. Aholkulariok Alkate-presidenteak izendatuko ditu. Modu berean, Alkatetza-presidentetzak Epaimahaiaren kolaboratzaileak izenda ditzake Udaletxeko langileen artean, eta horien funtzioa izango da hautaketa prozedurako egintza materialen kudeaketan laguntzea, eta ez dira Kalifikazio Epaimahaiko kide izango.

Kalifikazio Epaimahaiko kideek egoki diren indemnizazioak jasoko dituzte, zerbitzuagatiko indemnizazioei buruzko indarreko araudiak xedatzen duenarekin ados.

SEIGARRENA.- HAUTAKETA PROZESUAREN HASIERA ETA GARAPENA.-

Hautagaiei ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie. Deialdiaren unean edozein ariketatara ez aurkezteak ariketan parte hartzeko eskubidea galtzea dakar, eta ondorioz, hautaketa prozesutik kanpo geratzea.

Oposizio faseko ariketen data, ordua eta lekua Udaleko Iragarki Taulan eta web gunean argitaratuko dira, hori xedatzen duen Alkatetzaren ebazpen edo iragarki baten bidez.

Ariketa bat guztiz bukatuzetik hurrengoa hasi bitartean, gutxienez, 72h igaroko dira, eta gehienez, 45 egun natural.

Epaimahaiaren bileren akta egingo du idazkariak, eta bertan, hautagaien banakako ebaluazioa jasota geratuko da, baita gainditu dutenen kalifikazioak eta gertakariak ere. Zenbakitutako eta errubrikatutako akta/k hautaketa proben espedientea osatuko du/dute. Txostenean, aktari, azterketa orriak edo hautagaiek egindako ariketak gehituko zaizkio.

ZAZPIGARRENA.- HAUTAKETA PROZEDURA ETA BALDINTZAK.-

Hautagaien hautaketa prozedura LEHIAKETA-OPOSIZIO bidezkoa izango da, eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuko, toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenak onartzen dituena, 171.2 artikulua dioenaren arabera. Hautaketa lehiaketa-oposizio sistema bidez burutuko da, deialdiko plazaren izaeragatik eta horri lotutako funtzioengatik sistemarik egokiena delako, Administrazio Eskala Berezikoko plaza denez, hautagaien meritua eta gaitasun printzipioak hobeto aplikatu daitezke, ez baitira ezagutza teorikoak soilik aintzat hartuko, baita lan esperientzia, funtzioekin lotutako gaitan prestakuntza berezia izatea eta hautagai bakoitzaren ezagutzak ere.

Hautaketa probetarako gaien programa oinarri hauetako III. Eranskinean dago. Hautaketa sistema, bere aldetik, honelakoa izango da:

Oposizio fasea.

Gehienez, 55,00 puntu lor daitezke. Ariketa guztiak derrigorrezkoak eta kanporatzaileak izango dira. Gutxienez, ariketa bakoitzeko puntuazioaren erdia lortu beharko da gainditzeko.

Ariketak eginda eta kalifikatuta, Epaimahaiak argitaratu egingo du gainditu duten hautagaien zerrenda, bakoitzaren puntuazioekin.

Ariketak hauek izango dira, denak derrigorrezkoak eta kanporatzaileak:

Lehen ariketa: Epaimahaiak adierazitako baldintzen arabera, galdetegi bati erantzun beharko zaio idatziz, deialdiari erantsita doan programaren edukian oinarritua. Ariketa egiteko denbora ere Epaimahaiak ezarriko du. Ariketari 0,00 eta 25,00 puntu bitartean emango zaizkio. Epaimahaiak, hautagaien identitatea jakin baino lehen, gutxieneko 12,50 puntuak lortzeko behar den ezagutza maila ezarriko du, baita oker erantzundako galderengatiko penalizaziorako irizpideak ere.

Ariketa gainditzen ez dutenei "ez gai" kalifikazioa emango zaie eta ez dute bigarren ariketan parte hartzeko eskubiderik izango.

Ariketaren kalifikazioen zerrenda Udaleko iragarki taulan eta web gunean argitaratuko da.

Bigarren ariketa: Epaimahaiak finkatutako denboran, idatziz, kasu praktiko bat ebatzi beharko da, deialdi honetako eranskinean dagoen Ikasgai-zerrendaren zati espezifikoa iruzkoa, Azpieskalako berezko funtzioei iruzkoa alegia.

Bigarren ariketa burutzeko, hautagaiek testu legalak erabili ahal izango dituzte (paperean bakarrik), baina ezin izango dute erabili legedi, jurisprudenzia edo doktrina erreperitorio iruzkindurik, ez paperean ezta euskarri elektronikoa ere.

Baloratuko dira arrazoitzeko gaitasuna, planteamenduko sistematika eta ondorioak formulatzea. Ariketari 0,00 eta 30,00 puntu bitartean emango zaizkio. Epaimahaiak, hautagaien identitatea jakin baino lehen, gutxieneko 15,00 puntuak lortzeko behar den ezagutza maila ezarriko du.

Ariketa gainditzen ez dutenei "ez gai" kalifikazioa emango zaie eta ez dute bigarren ariketan parte hartzeko eskubiderik izango.

Ariketaren kalifikazioen zerrenda Udaleko iragarki taulan eta web gunean argitaratuko da.

Oposizioaren azken kalifikazioa: azken kalifikazioa ariketa bien puntuazioa batzetik aterako da. Ariketaren bat gainditzen ez duten hautagaiek "ez gai" izango dira. Oposizio faseko azken kalifikazioen zerrenda Udaleko iragarki taulan eta web gunean argitaratuko da.

Lehiaketa fasea.

Ez da kanporatzailea izango, eta ezin izango da aplikatu fase honetan lortutako puntuazioa oposizio faseko ariketen kalifikazioa gainditzeko. Ez da dokumentu bidez eta ezarritako epean eta moduan egiaztatatu gabeko meriturik baloratuko.

Lehiaketa faseko merituen balorazioko zerrenda Udaleko iragarki taulan eta web gunean argitaratuko da.

Gehienez, 20,00 puntu eskura daitezke. Merituak irizpide eta baremo hauen arabera baloratuko dira:

- Lan esperientzia.- gehienez, 12 puntu, honela baloratuko direnak:

Administrazio publikoan, funtzionario edo lan-kontratudun langile gisa, emandako zerbitzuak, arkitekto edo horren baliokideko lanpostuko zereginetan: 4 puntu emango dira zerbitzua eman den urte oso bakoitzeko. Urte osotik beherako lanaldien puntuazioa hainbanatu egingo da, baina hilabete osoak bakarrik hartuko dira kontuan.

Administrazio publikoan, administrazio kontratu bidez, emandako zerbitzuak, arkitekto edo horren baliokideko zereginetan: 3 puntu emango dira zerbitzua eman den urte oso

bakoitzeko. Urte osotik beherako lanaldien puntuazioa hainbanatu egingo da, baina hilabete osoak bakarrik hartuko dira kontuan.

Arkitekto lanagatik, norbere edo besteen kontura, eremu pribatuan puntu 1 emango da zerbitzua eman den urte oso bakoitzeko. Urte osotik beherako lanaldien puntuazioa hainbanatu egingo da, baina hilabete osoak bakarrik hartuko dira kontuan.

Prestakuntza espezifikoa.- erakunde ofizialetan eta deialdiko lanpostuarekin lotutako gaiekin lotuta dauden ikastaro, jardunaldi, mintegi eta abarregatik, gehienez, 3 puntu. Merituak baremo honen arabera baloratuko dira:

.25 eta 100 eskola-ordu bitarteko ikastaroa: 0,30 puntu, gehienez 1,5 puntu.

.101 eta 200 eskola-ordu bitarteko ikastaroa: 1 puntu, gehienez, 2 puntu.

.201 eta 300 eskola-ordu bitarteko ikastaroa: puntu 1,5, gehienez, 3 puntu.

.300 eskola-orduetik gorako ikastaroa: 4 puntu.

Curriculum-elkarrizketa. Hautaketa Epaimahiak hautagaiak elkarrizketatuko ditu alegatutako eta egiaztatutako merituetan sakontzeko asmoz, bete beharreko lanpostuko funtzioak eta eginkizunak garrantzi berezia izango dutelarik. Elkarrizketa hau gehienez ere 4 punturekin balioetsiko da.

Alegatutako merituak egiaztatzeko sistema hau izango da:

Lan esperientzia egiaztatzea.

Administrazio Publikoetan: emandako zerbitzuen ziurtagiria, Administrazio horretako organo eskudunak egina. Agirian zerbitzuen iraunaldi zehatza jasota geratu behar da eta zerbitzuok zein baldintzatan eman diren.

Enpresa pribatuan, emandako zerbitzuen ziurtagiria, enpresak eginikoa, edo Gizarte Segurantzak egindako lan-bizitzaren agiria. Lanbidea era askean egikaritu bada, dagokion profesionalen Elkargoaren ziurtagiria.

Prestakuntza espezifikokoaren egiaztatzea: ikastaroko diploma edo egiaztapenaren fotokopia konpultsatua aurkeztuko da, eskola-orduak jasotzen dituenak. Eskola-orduak ziurtatzen ez diren ikastaroak ez dira onartuko.

Euskara.- Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko 43.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eskala honen arabera kalifikatuko da:

.- 4. Hizkuntza Eskakizuna: 15 puntu

.- 3. Hizkuntza Eskakizuna: 14 puntu.

Azken kalifikazioa.

Oposizio faseko puntuazioa, lehiaketa fasekoa eta euskarari dagokiona batzetik aterako da. Hautagaien arteko berdinketa kasuan, lehenbizi, oposizio faseko puntuazioa hartuko da kontuan; berdinketa mantentzen bada, kasu praktikoko puntuazioari begiratuko zaio, edo hori ez badago, kasu teorikoko puntuazioari. Berdinketa ez bada desegin, Lan esperientzian lortutako puntuazioa begiratuko da. Hala ere, berdinketak jarraitzen badu, zozketa publiko bidez ebatziko da.

Azken kalifikazioak Udaleko iragarki taulan eta web gunean argitaratuko dira.

ZORTZIGARRENA. GAINDITUTAKOEN ZERRENDA, IZENDAPEN PROPOSAMENA ETA AGIRIAK AURKEZTEA.

Hautaketa probak amaituta, Epaimahaiak gairatu duten hautagaien zerrenda egingo du, azken puntuazioaren arabera ordenatuta, eta Udaleko iragarki taulan eta web gunean argitaratuko da.

Zerrenda horrekin ados, Alkate-udalburuari bidaliko zaizkio azken bilerako akta eta puntuaziorik altuena lortu duen hautagaiaren izendapen proposamena.

BOST EGUN NATURALEKO epean, gairatu dutenen zerrenda Udaleko iragarki taulan eta web gunean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, Epaimahaiak proposatutako hautagaiak, Udal honetako Erregistro Orokorrean, hirugarren Oinarrian adierazten diren baldintzen honako ziru-tagiri hauek aurkeztuko ditu:

A) NAN fotokopia, originalarekin batera, konpultsatzeko.

B) Arkitekturako Lizentziaturaren originala, notarioak egiaztatutako kopia edo fotokopia konpultsatua, eta Hizkuntza Eskakizun egiaztatua.

C) Lanpostuari dagozkion eginkizunak normal betetzea eragozten duen gaixotasunik edo ezintasun fisikorik ez izatea egiaztatzen duen ziru-tagiri medikoa.

D) Diziplina-espediente bidez edozein Herri Administrazioaren zerbitzuetik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako ezgaitasun erabatekoa edo berezia ez izatea, eta ezgaitasun kausarik ez edukitzea azaltzen duen zinpeko adierazpena. Adierazpen hori Oinarri hauetako II. Eranskineko eredu normalizatuaren arabera egin behar da.

Aurretik aipatutako epean ez bada exijitutako dokumentazioa aurkezten (ezinbesteko kasuetan izan ezik) edo agiriak aurkeztean ondorioztatzen bada deialdiaren baldintzak betetzen ez direla, edo adierazpen faltsua egon den kasuetan, hautagaitza baliogabetuko da, eta ondorioz, Epaimahaiaren hautagai horiekiko egintzak ere nuluak izango dira eta ezin izango dira izendatuak izan. Horrek guztiak ez du esan nahi beste ardura batzuk ere exiji ezin dakiekeenik.

Agiriak aurkezteko epea iraganda eta organo eskudunak behin onartutako hautagaiaren proposamena onartuta, hautagaia funtzionario izendatuko da, dagozkion modalitatean. Ebazpen horretan, jasota geratu behar da izendatutako langileen obligazioa dela, lanpostuaz jabetzeko epearen barruan, betetzea abenduaren 26ko 53/1984 Legeko 10. artikulua eta apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuko 13. artikulua diotena.

Adierazpen horrek aipatuko du interesdunak erretiro pentsiorik jasotzen ari den edo ez, eskubide pasiboengatik edo edozein gizarte segurantzaren erregimen publiko eta derrigorrezkorengatik, abenduaren 26ko 53/1984 Legeko 3.2 artikuluko eta Bederatzigarren Xedapen Iragankorreko ondoretarako.

Izendatutako hautagaiak karguaz jabetu behar du eta zin egin, apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuak aurreikusten duen eran.

BEDERATZIGARRENA. FUNTZIONARIO IZENDATZEAREN BALDINTZAK

Programa jakin bat garatzeko funtzionario izendapena honako baldintza hauen menpe egongo da:

Funtzioak: deialdiko azpieskalari dagozkionak, izendapenaren xede den programari lotutakoak.

Ordainsariak: deialdiko plazari, indarreko legearen arabera, dagozkion oinarrizko ordainsariak jasoko ditu eta lanpostuari esleitutako osagarriak ere bai.

Iraunaldia: izendapena behin behinekoa izango da eta baliogabetuko da izendapenaren xede den aldi baterako programa amaitzen denean, indemnizazioa jasotzeko inolako eskubiderik gabe.

Erregimen juridikoa: izendapenak Udal honetako programa jakin bat garatzeko funtzionario baldintza emango dio interesdunari, eta horri dagozkion erregimena funtzio publikoari buruzko legediak aurreikusitakoa izango da.

Bateraezintasunak: izendatuak, lanpostuaz jabetzeko epean, bete beharko du abenduaren 26ko 53/1984 Legeko 10. artikulua dioena.

HAMARGARRENA. ERRESERBAKO ZERRENDA OSATZEA.

Lehiaketa-oposizioko azken kalifikazioa gainditzen dutenen gainerako hautagaiekin erreserbako zerrenda osatuko da, eta zerrenda hori oinarri, izendapenak egin ahal izango dira, Langile Publikoaren Estatutuak aurreikusten duenarekin ados.

Alkatetza-presidentetzak Arkitekto lanposturako erreserbako hautagaiek osatzen duten zerrenda onartzeko ebazpena egingo du. Zerrenda hau baliogabe gera daiteke eguneratzeko hautaketa prozesua berrikerik deituz gero, edo karrerako funtzionario lanpostua betetzeko hautaketa prozesurako deialdia egingo balitz.

HAMAIKAGARRENA. ERREGIMEN JURIDIKOA.

1.- Oinarri hauek aurreikusten ez duten guztirako, honako lege hauen arabera jokatu da: Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko 7/2007 Legea, apirilaren 12koa; Toki Araubidearen Oinarrizko Arautzen dituen 7/1985 Legea, apirilaren 2koa; Tokiko Erregimenean indarrean dauden xedapen legalak onartzen dituen 781/1986 Errege Lege Dekretua, apirilaren 18koa; 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Toki Administraziooko funtzionarioen hautaketa prozesuak bete beharreko oinarrizko arauak eta gutxieneko programei buruzkoa; 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena; 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorren langileak zerbitzuan sartzeko araudia onartzen duena eta izaera gehigarria duena; eta materia arautzen duten gainerako xedapenak, Langile Publikoaren Estatutuaren aurka ez doan guztian.

2.- Epaimahaiaren eskumena izango da hautaketa prozesuan sor litezkeen zalantzak argitzea, baita deialdia egoki eta zuzen tramitatzeko eta probak behar bezala garatzeko erabakiak hartzea ere.

HAMABIGARRENA. AURKA EGITEA.

Deialdiaren, bere oinarrien eta deialditik eta epaimahaiaren jardueratik erator daitezkeen administrazio egintzen aurka egin dezakete interesdunek, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak ezarritako epean eta moduan.

I. ERANSKINA: ESKABIDEA
PROGRAMA BATERAKO ARKITEKTOA FUNTZIONARIO GISA KONTRATATZEKO ETA
ERRESERBA ZERRENDA OSATZEKO DEIALDI PUBLIKOAN PARTE HARTZEKO
ESKABIDEA.

DATOS PERSONALES.

NAN/Pasaportea:

Jaiotze data:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Izena:

Helbidea:

Udalerrria:

Posta kodea:

Lurraldea:

Nazionalitatea:

Telefonoa:

Telefono mugikorra:

e-maila:

Irisgarritasuna BAI EZ

TITULAZIOA:

Titulazio akademikoa:

Non egina:

Data:

ERANTSITAKO AGIRIAK (aipatu)

A) Hautagaiaren NAN, pasaportea edo nortasun txartela.

B) Egoki den titulu akademikoa edo eskatu egin dela egiaztatzen duen agiria.

C) Euskara titulua

D) Merituen zerrenda lehiaketa fasean baloratzeko.

E) Oinarrien II. Eranskina, behar bezala beteta.

Behean sinatzen duenak eskatzen du deialdiko xede diren hautaketa probetan onartua izatea, eta adierazten du deialdian exijitzen diren baldintza guztiak betetzen dituela eta ematen dituen datu guztiak benetakoak direla. Halaber, inprimaki honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko konpromisoa hartzen du.

Interesduna:

Lekua eta data: _____

LEIOAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU ANDREA

Datu Pertsonalen 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koa, ezartzen duenaren arabera, jakinarazten zaizu zure datu pertsonalak Leioako Udalaren jabetzako fitxategian gorde eta tratatuko direla. Fitxategiaren titularrak erabili ahal izango ditu bere eskumenen barruko funtzioetarako. Era berean, jakinarazten da utzi ahal izango direla, indarreko legediarekin ados. Datuak ikusi, zuzendu, ezabatu eta horien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu Leioako Udalari zuzendutako idazkiaren bidez (Elexalde 1, P.K: 48940).

II. ERANSKINA. ZINPEKO ADIERAZPENA.

..... jaunak/andreak, adin nagusikoa,
..... NAN zenbakia duena, programa jakin bat garatzeko funtzionarioa,
Arkitektoa, hautatzeko eta erreserba zerrenda osatzeko deialdiko oinarrietan aurreikusten diren ondoreetarako,

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Lehenik:

Nazionalak: Diziiplina-espeditente bidez edozein Herri Administrazioen zerbitzutik bereizita ez nagoela, eta ebazpen judizialaren arabera, funtzio publikorako ezgaikuntzarik ez dudala.

Atzerrikoak: Nire Estatuan, funtzio publikoa burutzeko ezintasuna ezartzen didan diziiplina-zehapenik edo kondena penalik ez dudala.

Bigarrenik:

Hautaketa prozesuko lanpostuari dagozkion eginkizunak normal betetzea eragozten didan gaixotasunik edo ezintasun fisikorik ez dudala.

Interesduna:

Lekua eta data: _____

III. ERANSKINA. IKASGAI ZERRENDA.

Gai orokorrak: Administrazio Zuzenbidea.

1. gaia- Administrazio egintza: kontzeptua definitzea eta elementuak. Administrazio egintzen sailkapena. Baldintzak: motibazioa eta forma.

2. gaia- Administrazio egintzen eraginkortasuna, eta horiek jakinaraztea eta argitaratzea. Administrazio egintzen baliogetasuna. Egintzen baliogetasuna eta baliorik gabe uzteko aukera.

Baliogetetzen ez duten irregulartasunak. Administrazio egintzak baliozkotzea, kontserbatzea eta eraldatzea.

3. gaia. Administrazio prozedura erkidea: xedapen orokorrak eta administrazio prozeduraren faseak.

4. gaia- Udal antolakuntza. Oinarrizko organoak: alkatea, Osoko Bilkura eta Tokiko Gobernu Batzordea. Kide anitzeko organoen funtzionamendua.

6. gaia- Udalerria: kontzeptua eta elementuak. Udal-mugartea: udalerrien sorrera eta ezabapena. Udal-mugarreak aldatzea.

7. gaia- Tokiko Entitateen ondasunak. Motak. Tokiko jabari publikoa. Tokiko Entitateen ondarea.

8. gaia- Funtzionario publikoak. Administrazio Publikoen zerbitzupeko langile motak. Funtzionario publikoen eskubide eta betebeharrak. Langile publikoen jokabide kodea. Zerbitzu harremana hartzea eta galtzea. Diziplina erregimena.

Gai espezifikoak:

1. gaia- Obra aurreproiektua. Obra proiektua: burutzeko jarraibideak, edukia eta motak. Gainbegiratzea. Proiektuak aldatzea. Aurrekontuak.

2. gaia- Sektore Publikoko Kontratuak Legea. Kontratuak baldintzak. Kontratazio organoak. Kontratista: gaitasuna, kaudimena, debekuak, sailkapena. Kontratista hautatzea. Kontratu aurretiko egintzak. Esleipenerako prozedurak, formak eta irizpideak. Bermeak. Kontratu perfektionatzea eta gauzatzea.

3. gaia- Administrazio kontratuak betearaztea eta aldatzea. Aipamen berezia obra ziurtagiriei. Administrazioaren eskumenak. Kontratuaren finantza-oreka. Prezioak berrikustea.

4. gaia- Udal administrazioaren esku hartzea jarduera eta zerbitzuen gainean: lizentzia behar duten jarduera sailkatuen erregimena. Zinpeko adierazpena eta aurretiazko jakinarazpena behar duten jardueren erregimena.

5. gaia- Lan arriskuak prebenitzeko 31/1995 Legea, azaroaren 8koa: aplikazio xede eta esparrua; eskubideak eta betebeharrak; babeserako eskubidea; prebentzioko ekintzaren printzipioak; lan arriskuaren prebentziarako plana, arriskuak ebaluatzea eta prebentzio jarduera planifikatzea; babeserako baldintzak. Prebentzio zerbitzuak. Enpresariaren erantzukizunak.

6. gaia- Azaroaren 5eko Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 Legearen arabera, eraikuntzaren esleipenaren tekniko eta administratiboak. Eraikuntzaren, proiektuaren, lizentzien

eta administrazio baimenen oinarrizko baldintzak. Obra hartzea eta egindako obraren dokumentazioa. Eraikuntzaren araudi teknikoa eta kalitate kontrola.

7. gaia- Obrak betearaztea eta zuzentzea. Neurriak hartzea. Ziurtagiriak eta kontuan ordainketak egitea. Obra kontratua aldatzea. Prezioak berrikustea. Hartzea, berme epea eta likidazioa. Obra kontratua suntsiaraztea.

8. gaia- EAEko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, eta hori garatzen duten araubideak: lurzoria sailkatzea eta kalifikatzea. Erabileren erregimena. Partzelatzeak eta birpartzelatzeak. Eraikigarritasuna. Lurzoruaren Jabetzako erregimena. Hirigintza Araudiko planak eta gainerako tresnak.

9. gaia- EAEko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, eta hori garatzen duten araubideak: edukia, aldaketa, onartzeko prozedura. Hirigintzako estandarrak.

10. gaia- EAEko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, eta hori garatzen duten araubideak: hirigintza antolamendua betearaztea. Betearazpen unitateak. Hirigintzako jarduketa programak. Betearazpen sistemak. Tokiko Sistemen eta Sistema Orokorren sarea lortzea eta baloratzea.

11. gaia- EAEko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, eta hori garatzen duten araubideak: hirigintzako araudiaren bermeak eta babesak. Lizentziak. Hirigintza diziplina. Betearazpen aginduak. Aurri-deklarazioa.

12. gaia- Ingurumenaren Babeserako EAEko 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa: zenbait jardueraren ingurumen-inpaktua ebaluatzea. Plan eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoari buruzko 211/2012 Dekretuko, urriaren 16koa, prozedura faseen ezagutza teorikoa.

13. gaia- Ingurumenaren Babeserako EAEko 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa: Kutsadura akustikoa. Kutsadura Akustikoari buruzko 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa.

14. gaia- Ingurumenaren Babeserako EAEko 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa: Lurzoruaren kutsadura. Lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta konpontzeko 1/2005 Legea, otsailaren 4koa. Eraikuntza eta eraispeneko hondakinei buruzko 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa. Kutsatutako lurzoruaren inbentarioari buruzko 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa. Hondakin, zabortege eta betegarriari buruzko 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa.

15. gaia- Hiri birgaitzea: Hiri birgaitze, berroneratze eta berritzeari buruzko 8/2013 Legea, ekainaren 26koa. Eraikinak ebaluatzeko txostena. EAEko eraikinen inspektzio teknikoa arautzen duen 241/2012 Dekretua, azaroaren 21ekoa.

16. gaia- Balorazioak: Lurzoruaren Legeko Testu Bategina, urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuak garatzen duena, onartzen duen ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretu Legegileko III. Tituluan arautzen diren balorazioen erregimenari buruzko ezagutza teoriko eta praktikoa.

17. gaia- Ingurumenaren Babeserako EAEko 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa: zenbait jardueraren ingurumen-inpaktua ebaluatzea. Plan eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoari buruzko 211/2012 Dekretuko, urriaren 16koa, prozedura faseen ezagutza teorikoa.

18. gaia- Ingurumenaren Babeserako EAEko 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa: Kutsadura akustikoa. Kutsadura Akustikoari buruzko 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa.

19. gaia- Ingurumenaren Babeserako EAEko 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa: Lurzoruaren kutsadura. Lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta konpontzeko 1/2005 Legea, otsailaren 4koa. Eraikuntza eta eraispeneke hondakinei buruzko 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa. Kutsatutako lurzoruen inbentarioari buruzko 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa. Hondakin, zabortegei eta betegarriari buruzko 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa.

20. gaia- Hiri birgaitzea: Hiri birgaitze, berroneratze eta berritzeari buruzko 8/2013 Legea, ekainaren 26koa. Eraikinak ebaluatzeko txostena. Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko legedia. Xede eta esparrua. Birgaitze jarduera babestuak. Finantza neurriak. Jarduera motak. Birgaitze jarduera babestuen titularrak. Birgaitze integratuko esparruak, Plan Bereziak eta Birgaitzeko Hirigintza Sozietateak. Eraikinen Inspeksio Teknikoa.

21. gaia- Ondare Historiko Artistikoa. Euskal Ondare Kulturalari buruzko 7/1990 Legea, uztailaren 3koa; eta Euskadiko Ondareari buruzko 5/2006 Legea. Ondarearen babesa Leioan indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Nagusian.

22. gaia- Leioako Hiri Antolamendurako Plan Nagusia. Eredu urbanoa eta lurralde eredua. Bide sarea: garraioa, sare metropolitarrarekiko harremana, egitura urbanoarekiko interrelazioa, lehen mailako bide sareari buruzko iruzkinak. Espazio askeak eta gunek berdeak. Ekipamenduak. Lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa. Erabilera globalak. Eraikigarritasunak. Hazkunde irizpideak. Lurralde esparruko sistema orokorrak existitzearen eragina.